

NOLA EGIN AURRE ZAINTZEN ARI NAIZENAREN SINTOMA PSIKOTIKOEI

Dementia duten pertsonak maizena dituzten sintoma psikotikoak haluzinazioak eta eldarnioak dira.

Haluzinazioak dituen pertsona batek errealitatean ez dauden gauzak ikusi, entzun edo usaindu ditzake edo dastamen- edo haztamen-sentsazioak izan (mamuruak ikusi, ahotsak entzun, ukitzen dutela sentitu...).

Eldarnioak errealitatearen alterazioak dira, zeinetan benetako estimulu batek argudioekin aldatzen ez den ideia edo uste faltsu eta arrazoigabe bat eragiten duen (uste izatea berea ez den beste etxe batera eraman dutela, ezagutzen ez duen pertsona batekin, eta, gainera, telebistatik edo irratitik kontrolpean dutela).

Halakoak dituzten pertsonak bi kasu horietan uste dute benetakoak direla egoera horiek. Eskuarki, kezka handiz bizi dira halakoak eta horrek portaeran alterazioak eragin ditzake.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Asaldurak egun zehatz batean bat-batean agertzen badira, komeni da osasun arloko erreferentziako taldearekin kontsultatzea eta tratamendua duen eritasun bat dela baztertzea.
- ▶ Errebisatu pertsona eriaen ikusmena eta entzumena, arazo sensorialekin haluzinazioak errazago gertatzen baitira.
- ▶ Sintoma horiek agertzen badira eta pertsona eria beldurtzen bada, saiatu ez larritzen. Sintomek, batzuetan, ez diote modu txarrean eragiten pertsonari (katutxo bat ikustea, kantatzea kontzertu bat ematen ari delako...). Dena dela, lotu sintomak demenziarekin. Saiatu lasaitasunez eta ziurtasunez erreakzionatzen, eta esan dena kontrolpean dagoela. Hori eginez gero, pertsona eria ez da hain erraz jarriko urduri.
- ▶ Komeni da eldarnioa edo haluzinazioa ez izatea arazo- eta eztabaida-iturri. Ahalegindu sintoma horiek dituen pertsonari kontra ez egiten edo alde batera uzten, jarrera horrek gatazkak sor baititzake. Era berean, ez berretsi haiek ikusitakoa, pentsatutakoa edo entzundakoa. Ahalegindu erantzun neutroak ematen, konpromisorik hartu gabe.
- ▶ Pazienteak ez bagaitu ezagutzen, garrantzitsua da nor garen esan eta harengana hurbiltzea, lasai eta haren ikusmen-eremuaren barnean.
- ▶ Ukimen fisikoa zentzuz erabili. Batzuetan ukimen fisikoa lasaigarria izan daiteke, baina gerta daiteke ez onartzea ere.
- ▶ Pertsona distraitu, benetako gaietan jar dezan arreta. Esaterako, jateko zerbait eskaintzea, beste gela batera eramatea, etab.
- ▶ Ez mintzatu pertsona eriaz bere aurrean bera egonen ez balitz bezala. Hala, solasaldietako interpretazio okerrak gutxiago izanen dira.

- ▶ Ezarri ingurune lasai, ordenatu eta argitsua, estimuluak dituena, baina estimulu gehiegirik gabe.
- ▶ Gomendatutako estrategiak erabili ondoren egoerak hobera egiten ez badu, egin kontsulta osasun arloko erreferentziako taldeari.

